

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HABEren Zuzendaritza Batzordea Bilera-akta

Eguna: 2018-12-20

Hasiera-ordua: 16:30

Bukaera-ordua: 17:45

Bertaratuak

Batzordeburua:

Bingen Zupiria Gorostidi jn., Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburua

Batzordekideak:

- Miren Dobaran Urrutia and., Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea
 - Estibaliz Alkorta Barragan, and., Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria
 - Joseba Lozano Santos jn., Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria
 - Jokin Azkue Arrastoa jn., HABEren zuzendari nagusia eta Zuzendaritza Batzordearen idazkaria
 - Garbiñe Doval García and., HAAE-IVAPEko Euskara zuzendariordea
 - Lorea Bilbao Ibarra and., Bizkaiko Euskara eta Kultura Departamentuko foru-diputatua
 - Miren Garbiñe Mendizabal Mendizabal and., Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari nagusia
 - Andres Iñigo Ariztegi jn., Euskaltzaindiaren ordezkaria
 - Lurdes Isart Badiola and., HABEko Didaktika zerbitzuko ordezkaria
 - Joseba Urriz Goikoetxea jn., Araba eta Bizkaiko udal-euskaltegietako irakasleen ordezkaria
 - Arantxa Ezeiza Trojaola and., Gipuzkoako udal-euskaltegietako irakasleen ordezkaria
- Bertaratu ezina adierazi dutenak**
- Joseba Koldo Pérez de Heredia Arbígano jn., Arabako Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol foru-diputatuaren ordezkaria.
 - Aitor Aldasoro Iturbe, Eudelen ordezkaria

Aztergaiak

- 1.- 2018-05-07ko bilera-akta onartzea
- 2.- AGINDU PROIEKTUA, 2018ko apirilaren XXekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, HABEren prestakuntza-planen araubidea ezarri eta HABEren homologazioa jasotzeko, helduen euskalduntze-arloko prestakuntza-jarduerak izan behar dituzten ezaugarriak eta bete behar dituzten jarraibideak arautzeko dena
- 3.- *Euskara jakiteko eskubidea bermatzeko* EH-Bilduren lege-proposamenaren egungo egoera
 - 3.1. *Euskara jakiteko eskubidea bermatzeko* EH-Bilduren lege-proposamena
 - 3.2. Eusko Jaurlaritzaren erabakia lege-proposamen horren aurrean
- 4.- 2019ko aurrekontu proiektua
- 5.- 2017-2018 ikasturteko jarduera euskaltegietan eta 2018-2019 ikasturterako jardueraren aurreikuspena
- 6.- Eskariak eta galderak

ESANAK eta ERABAKIAK

1.- 2018-05-07ko bilera-akta onartzea

Euskaltzaindiko Andres Iñigok 2 akats aurkitu ditu aktan:

- 1) 4.1eko 3. lerroan, *material kurrikularren* jartzen du, eta *material curricularraren* behar luke.
- 2) 5. puntuaren bukaera aldera, *langin* jartzen du *lagin* ordez.

Bi puntu horiek zuzenduta, ontzat jo da aurreko akta.

Aurreko bileran erantzutekotan geratutako pare bat puntu argitu nahi izan ditu Jokin Azkuek. Batetik, Andres Iñigok eskatutako azterketen emaitzen inguruan, bidali zaio azken ebaluazioak biltzen dituen txostena. Eta bigarrenik, Garbiñe Dovalek aurreko bileran egindako galderaren inguruan (HABEk eta OSAKIDETZAK sinatua duten hitzarmenari buruzkoa) –beren ordu-kreditua agortu eta dagokien hizkuntz eskakizuna eskuratu ez duten Osakidetzako langileei– HABEren zuzendariak erantzun azaldu du eskaintzen zaizkiela ikastaro trinkoak.

2.- AGINDU PROIEKTUA, 2018ko apirilaren XXekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, HABEren prestakuntza-planen araubidea ezarri eta HABEren homologazioa jasotzeko, helduen euskalduntze-arloko prestakuntza-jarduerak izan behar dituzten ezaugarriak eta bete behar dituzten jarraibideak arautzeko dena

Agindu horren aurrerapena egin zen aurreko bileran. Eusko Jaurlaritzaren 30/2008 Dekretuak jasotzen du langileen prestakuntza planifikatzeko irizpide orokorrak. HABEk orain arte ez du berariazko planik izan eta hutsarte hori betetzera dator. Plan hori erakundeko langileentzat ez ezik, euskaltegi eta autoikaskuntzarako zentroetako langileentzat ere bada. Beren-beregi antolatuko diren prestakuntza-jarduerak hizkuntzen irakas-ikastearen esparrukoak izango dira: Pedagogia, Euskal Filologia, Soziolinguistika, Psikolinguistika, Kudeaketa akademikoa eta IKTak, besteak beste.

Ikastaro horien harira, bi agiri-mota emango dira:

- bertaratze-agiria: % 80ko asistentzia betetzen duten partaideentzat
- aprobetxamendu-agiria: proba edo eskatutako lana gainditzen dutenentzat

Asmoa da luzatutako agirien berri ematea IVAPi, urtean behin gutxienez.

Aurreikusita dago 3 hilabete barru, gutxi gorabehera, agindua indarrean jartzea.

Batzordekideek ez dute eragozpenik jarri eta, horrenbestez, ontzat eman da.

3. Euskara jakiteko eskubidea bermatzeko EH-Bilduren lege-proposamenaren egungo egoera

3.1. Euskara jakiteko eskubidea bermatzeko EH-Bilduren lege-proposamena

Miren Dobaran sailburuordea lege-proposamen horren gainean aritu da; eranskinean dago jasota proposamen hori. Proposamena ezaguna da –neurri batean, bederen–, komunikabideetan maiz eman baita horren berri.

Talde parlamentario horren azalpenetan jasotzen da dirulaguntzak ez direla homogeneous helduen alorrean, eta proposatzen duen helburuetako bat da B2 mailaraino irakaskuntza doan izatea. Doakotasun hori Eusko Jaurlaritzak kudeatuko luke HABEren bitartez. C1-C2ri dagokienez, foru-aldundi eta udalen esku egongo litzateke diruz laguntzea.

Hezkuntzari dagokionez, Derrigorrezko Hezkuntza amaitzean, ikasleek, berez, B2 maila egiaztatzeko moduan egon beharko lukete, eta hori frogatzeko proba bat egitea proposatzen du; gainditu ezean, ikasleei ez litzaeie aitortuko maila hori.

Gure erkidegora etorri berrientzat, berriz, hizkuntza ofizial bietan eskolatzea proposatzen du.

3.2. Eusko Jaurlaritzaren erabakia lege-proposamen horren aurrean

Sailburuordearen hitzetan, Eusko Jaurlaritzak aintzat hartu du proposamena eta Eusko Legebiltzarrean bere bidea egin dezan nahi du. Gobernu-programan ere jasota dago helduen euskalduntzea doan izatea 2020rako. Hezkuntzari dagokionez, Gobernuak deritzo sail horren esku dagoela dagozkion neurriak hartzea; dena dela, ez du egokitzen jotzen DBH bukaeran azterketa bat jartzea B2 egiaztatzeko. Herri-langileen euskalduntzeari buruz, eskubidea onartzen da euskalduntzeko, baina dauden lege eta planen baitan. C1-C2 dagokienez, Jaurlaritzak ez du ezer erabakiko udal eta aldundiekin aurretik ezer adostu gabe.

Bingen Zubiriak ez du lege berri baten beharrik ikusten hori guztia aurrera eramateko. Bat dator planteamendu orokorrarekin, betiere muga batzuen barruan. Bestalde –Gobernuaren erabakiarekin bat eginez–, irizten dio ezin garela Hezkuntzaren esparruan sartu.

Arantza Ezeizak galdetu du ea egoera horretan, orain bezala banatuko liratekeen laguntzak, alegia, dirulaguntzarik jaso ahal izateko maila gainditu behar izatea. Sailburuak eta sailburuordeak baietsi dute bide horretatik jarraitu beharra dagoela, eta batzordeko beste kide batzuk ere bat etorri dira. HABEren zuzendariak aitortu duenez, puntu horretan desadostasunak egon litezke.

4.- 2019ko aurrekontu-proiektua

HABEren zuzendariak adierazi du kontuan hartu behar dela zein den testuingurua: aurrekontuak luzatu egin behar izan dira, berriak ez baitira onartu Legebiltzarrean. Ingurumari horretan, egokitzapen batzuk egin ahal izango dira eta beste batzuk ez. Proiektuko xehetasunak jasota daude eranskinean, eta horietako batzuen berri eman du.

HEOCaren barruan, euskaltegi guztiek egin dituzte bere ECPak (Euskaltegiaren Curriculum Proiektua) eta HABEK aldeko txostenak egin eta jaso ditu guztiak ebazpen batean. Eskertzekoa da egin duten ahalegina.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Bestalde, datorren udaberrian jarriko da abian hizkuntza-eskakizun (HE) asimetrikoen pilotajea, KABIArekin (Gipuzkoako Foru Aldundiko erakunde autonomoarekin) elkarlanean. Bertako langileei eskatuko zaien maila B2 da ahozkoan, eta idazmenean, berriz, salbuetsita daude.

Materialgintzako proiektuei begira, B2 mailako lehen liburukia plazaratuko da –Primeran! B2.1 euskara ikasteko eskuliburua, hain zuzen ere–, eta 2020an emango zaio amaiera B2.2 liburukiarekin. Eskuliburu horretan jardun biko metodologia du oinarri: aurrez aurreko jarduerak eta gelaz kanpo egin beharrekoak. Eskuliburua egiteko lehiaketara enpresa bakarra aurkeztu zen, hain justu ere, aurreko mailakoa eginda zuen enpresa bera, AEK eta ELKAR argitaletxeak osatutakoa. Orobat, *Bagoaz! B1* egitasmoaren gida didaktikoa argitaratuko da, eta jarraituko da IKASBIL ataria materialez hornitzen.

Datorren udazkenean ebaluazioari buruzko kongresu bat antolatuko du HABEk Donostiako Miramar jauregian, eta bertan izango da aukera adituekin esperientziak trukatzeko. Besteak beste, gurekin lan egin duen Neus Figuerasek hartuko du parte bertan.

Beste erakundeekin (IVAP, Osakidetza, Justizia...) ditugun harremanei eutsi egin diegu eta eskainitako zerbitzuak areagotu, langileak euskaratzeko eskaria biderkatu egin baita.

Euskal etheen finantzaketa Etxepareren eskuetan geratuko da erabat.

EGA Hezkuntzatik HABEra pasatuko da datorren urtean. Lehenengo deialdia, udaberrian egiten dena eta azterketari-kopuru handiena biltzen duena, Hezkuntzak berak egingo du; bigarren deialdia, aldiz –udazkenekoa, hiru bat mila lagunez osatua–, HABEk. EGako deialdiak HABEren deialdi irekien barruan txertatuko dira. Deialdi horiek arautzeko, agindua onartu beharko du Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburuak.

Aurrekontuetan igoera aurreikusita bazegoen ere, ezin izan da gauzatu. Momentuz ez dakigu ziur zer ataletan egin genitzakeen igoerak; espero dugu Jaurilaritzak lehenbailehen argitzea. Halere, euskaltegi pribatuek % 6ko igoera izango dute (urtarrila-irailean) eta publikoek, % 2,25ekoa. Aurrekontuetako gainerako ataletan ez dago aldaketa handirik.

Euskara-ikasleei emandako dirulaguntzetan, % 38ko igoera aurreikusten da, eta hurrengoan ere igoerekin jarraitzea espero dugu; hartara, B2 mailarainokoa doan izatera iritsiko ginateke. Lehenago esan dugun bezala, laguntzok maila gainditzeari lotuta leudeke.

Lorea Bilbaok galdetu du EGA HABEra pasatzearekin batera, pertsonala ere transferituko ote den. Jokin Azkue zuzendariak azaldu duenez, HABEk hiru teknikari eta 2 administrari eskatu ditu, 5 lanpostu guztira. Dagoeneko hasita dago Hezkuntza, transferentzia hori burutzeari begira, egitura-dekretua aldatzeko izapideak martxan jartzen. Hori guztia ekainerako prest egotea espero dugu. Aldaketa honekin, egiaztagintzaren kudeaketa sinplifikatu nahi izan da: Administrazio langileen egiaztatzeak IVAPen esku utzi, eta gainerako guztia, HABEren eskuetan.

5.- 2017-2018 ikasturteko jarduera euskaltegietan eta 2018-2019 ikasturterako jardueraren aurreikuspena

Erantsitako dokumentuak biltzen diren datu batzuk aipatu ditu Jokin Azkuek. Besteak beste, taulan ageri den 'ikasleak' eta 'matrikulak' kontzeptuak bereizteko arrazoa azaldu du; izan ere, ikasle batek matrikula bat baino gehiago egin dezake ikasturtean zehar eta, ondorioz, ikasturte-amaieran % 30 handiagoa izan ohi da matrikulei dagokien kopurua. Lurraldeka aztertuta, nabarmentzekoa da Bizkaiaren pisua, talde-orduen erdia inguru bertan ematen baitira. Datuak ikastereduka ere jasotzen dira, eta horretan aurrez aurrekoak izan du igoerarik handiena, autoikaskuntzak behera egin du eta jardun bikoak gora –baina oraindik presentzia txikia du azken horrek, hasi berria baita–.

Ikasleen matrikulazioari erreparatuta, ikusten da Araban behera egin duela % -1,1; aurreko urteetan bezalatsu. Gipuzkoan, berriz, nahiz eta aurreko ikasturteetan beheranzko joera erakutsi, gora egin du.

Dirulaguntzei dagokienez, tauletan jasotzen da aurrekontuan esleitutakoaren eta gero benetan gastatutakoaren arteko kitapena. Arlo horretan, nabarmentzekoa da euskaltegi pribatuetan eman direla igoerarik handienak, % 7,7ko igoera; euskaltegi publikoetan, aldiz, eutsi egin zaie jardueri eta % 2,7ko igoera izan dute, hirurtekoak direla-eta soldatak igo egin baitira.

Batzordeburuak nabarmendu du Arabako beherakada autoikaskuntzan eman dela eta ez aurrez aurrekoan. HABEren zuzendariak gaineratu du datuak ez direla kezagarriak, duten garrantzia ukatzeke: nahikoa da talde trinkoa bat gutxitzea horrelako kopuruak agertzeko.

Joseba Urrizek berriro adierazi du euskaltegiak birdefinitu beharra dagoela. Bere ustez, euskaltegien lana egiaztatze gintzatik harantzago doa eta erabilera sustatuko bada, gizarte-eragile ezinbestekoak dira. Erabilera sustatze horretan euskaltegien funtzio berriak definitu beharko lirateke.

6.- Eskariak eta galderak

Segidan, Joseba Urrizek mahairatu duen gaiak eztabaida zabal bati eman dio bidea. Josebaren esanetan, euskaltegien jarduera balioesteko hainbat arlo edo aldagai hartzen dira kontuan, baina badaude beste hainbat kontenplatu ere egiten ez direnak: euskararen erabilera bultzatzeko taldeak, herritar askok pertsonalizatutako eskolak eskatzen dizkiete euskaltegiei (hortik sortu dira tutoretzak), egiaztatutzak eginkizun berriak ekarri ditu... Azken finean, gaur egungo egoerak euskaltegien zeregina birdefinitzea eskatzen duela deritzo Urrizek; areago, HABE bera ere birdefinitu beharko litzateke, osagaiak aztertu eta baita osagaion funtzioa ere.

HABEren zuzendariak aitortu du egiaztatutzak ekarri dizkiela euskaltegiei *zaintiratu* batzuk. Lehen irakasle batek bizpahiru talde zituen, orain bost bat; talde bateko ikasleek ez dituzte helburu berak: batzuek mailaren bat egiaztatu nahi dute, beste batzuek ez. Urrizek azpimarratu nahi izan du bide askotatik egiten zaiola bultza egiaztatutzari, besteak beste, doakotasuna lortzeko jartzen den irizpide nagusitik ere, alegia, mailaren bat gaingitu beharra.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Miren Dobaranen aburuz gure sektoreak egokitu beharra dauka, garai batean Hezkuntzak bere azterketetan egin zuen bezala: ebaluazio-moldetan oinarritutako probetatik konpetentzietan oinarritutakoetara pasatu zirenean.

Joseba Urrizek berriro adierazi du egiaztagintzatik harantzago, euskaltegiek ez dakitela zer eskaini. Dobaranek erantzun dio agian eginkizun horiek ez direla euskaltegiek bakarrik egin beharrekoak; badaude bestelako taldeak ere, Berbalagun esaterako. Jendeari ez zaio nahieran eskaini behar prestakuntza, ezin zaie euskaltegiei dena eskatu –Hezkuntzarekin saiatzen ari diren legez–. Bestalde, BECeko proba erraldioen argazki hori –EGAko probetan ikusi ohi duguna– baztertzen saiatu behar dugu; hobe da formatu txikiagotan egitea.

Lurdes Isart bat etorri da Urrizekin eta adierazi du merezi duela hausnarketa egitea eta sortzen ari diren behar berrietara egokitzea, ze eginkizun berri horiek ere badira euskaltegien zeregina.

Bingen sailburuaren aburuz, gure sektoreko zenbait arazok badute antzekotasunik Hezkuntzan dauden galderekin, ebaluazio-akreditazioen sistemarekin. Berak ontzat jotzen du ebaluazioa edo akreditazioa kanpoko batek egitea. Jakitun dira Sailean helduen euskalduntzean ikasle-mota eta behar berriak ditugula, eta, agian, euskal hiztunak sortzeari begira, euskaltegietan darabilten metodologia ez dela egokiena; izan ere, euskal hiztunak sortzeko, litekeena da ahozko trebetasunei idatzizkoei baino garrantzi handiagoa eman behar izatea.

Arantxa Ezeizak adierazi du horretan asko lagundu lezakeela metodologiak; alegia, ahozkotasanari begira jarritako materialak eskaintzea.

Garbiñe Mendizabalen iritziz, euskaltegiek bat egin behar dute herriko dinamikan sortzen diren taldeekin; esaterako, euskara erabiltzeko dauden taldeekin.

Joseba Urrizek berriro adierazi du euskaltegiak birdefinitu beharra dagoela. Bere ustez, euskaltegien lana egiaztagintzatik harantzago doa eta erabilera sustatuko bada, gizarte-eragile ezinbestekoak dira. Erabilera sustatze horretan euskaltegien funtzio berriak definitu beharko lirатеke.

Arantxa Ezeizak udal-euskaltegiek duten arazo bat mahairatu du, garaiz heldu ezean arazo potolo bihur daitekeena: ordezko irakasleen falta. EUDEleko lan-poltsak egon, badaude, baina bajaren bat suertatuz gero ez dago irakaslerik eskura. Zaila da C2 maila eta graduazio bat duen jendea topatzea. Udaleko poltsak agortuta daudenez, IVAPi egitea eskaera pentsatu dute.

Dobaran sailburuordeak dio antzeko arazoa daukatela euskara-teknikariekin. Egoera horri konponbide bat eman nahian, EHUrekin hitz egiten ari dira master bat edo antolatzeko. Garbiñe Dovalen esanetan, lan-poltsen kontu hori berez Funtzio Publikoari dagokio, baina jarriko dira harremanetan, auzi hori nola bideratu aztertzeko.

Komentatu da udaltzainen lanpostuak betetzeko, udaletan poltsa bateratuak eratu dituzten bezala, bide horretatik jo daitekeela arazoari irtenbidea emateko.

Besterik ez dagoenez, bertaratutakoak agurtu eta etortzeagatik eskerrak eman ondoren, batzordeburuak bukatutzat eman du bilera.